



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

OBRA ETA ZERBITZUETAKO ARDURADUN ETA ARKITEKTO TEKNIKOAREN PLAZAREN LEHIAKETA-OPOSIZIOA

Astigarragako Udaleko lanpostuen zerrendan hutsik dagoen **Obra eta Zerbitzuetako arduraduna eta arkitekto teknikoaren plaza** txanda irekiaren eta lehiaketa-oposizioaren bidez jabetzan betetzeko deialdiari dagokionez, jakinarazten da

1.- **Euskara maila (C2 - 4. he) egiaztatzeko proba**, IVAPen deialdi bateratuaren barruan egingo da, **ekainaren lehenengo hamabostaldian, BIZKAIAN**.

Azterketaren data zehatza IVAPek eman bezain laster argitaratuko da.

2.- **Kasu praktikoak eta/edo teoriko-praktikoak ebazteko proba**, honako egun, ordu eta leku hauetan egingo dela:

Eguna: 2024-06-19 (asteazkena)

Ordua: 9:00etan

Lekua: Erribera kulturgunean (Kontxa Etxeberria 1).

Euskararen emaitza jakin ez arren edota proba teoriko-praktiko honen aurretik euskara probaren emaitza ebatzi eta ez gai izan arren, euskara proba egin duten hautagai guztiek eta 4. hizkuntz eskakizuna dutenek proba teoriko-praktikoa egin dezakete. Izan ere 4. hizkuntz eskakizuna duen inork ez badu proba praktiko gaitzen, 3. hizkuntz eskakizunarekin aski izango baita hautaketa-prozesuan jarraitzeko (4. hizkuntz eskakizuneko norbaitek proba gaituz gero, maila hori ez dutenen azterketa ez dira zuzenduko).

Astigarragan, 2024ko maiatzaren 16an.

Kontxi Urdanpilleta Santamaria
epaimahaiburua